



AMAIA ZENTROA
Benito Perez galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.com
945010505

Ondorengo zuku gozorako lehengaia behar da eta, Mahats bilketarekin batera hasten da bertso bilketa!



2014ko iraila

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera

Gasteizko herri mugimenduarekin entxosnatu gara 2014an

Abuztuak 4, Gasteizko Ama Birjina Zuriaren jaiak hasi dira, kaleak lepo beteak daude, bi lagunek topo egin dute alde zaharreko kantoi batean.

-Gau on hi, Goazemank poteatzera!

-Nora ba?

-Nora joango gaitunk ba... Gasteizko Txosnetara!

-Aizank hi!

-Zer dunk orain? Zer ahaztu dunk?

-Aiba la Rusia, zer ikusten ditenk neure begiek...! Bertsozaleek Txosna jarri ditenk! Orain indioek ere bertsoan egiten ditenk! Poteak zerbitzatu beharrean bertsoak botako al dizkitenk? Wazemank hi!!

Bi lagunak barrara urreratu, eztarria gar-bitu ta...

-Kamarer@!!!

-Zer...

-Kamarer@!!!

-Zer...

-Gernika kokakola, refresku santua...!
-Umerez hasi dituzue jaiak gaztiak!

-Bai, bazuan garaia bertsozaleak hemen egotekoa, ZORIONAK!!

-Hoi dunk eta, lehen bezeroak zarete eta

razioak opari! Kuskusa edo arroza osagai nagusi eta laguntzeko aukeran oilaskoa saltsan, txahala saltsan edota baratzeko berdurak.

-De dio, hoi ez dunk ogi tartean jatekoa, eee...

-Ez, gero pareko kontzertuan energiaz dantza egiteko moduko platera dunk hau.

Platera goitik behera miazkatzen duten bitartean.

-Ederra zionk! Bihar ere etorriko gaitunk! Txandaren bat ere egiteko prest geundenk, badakizu gaztiekin ligatzeko metodo ona da, bertsolari famaturen bat ezagutu eta holakoak...

- Primeran, etzi iluntzean laguntza beharko dugu saioa bitartean.

-Saioak ere ba al zeudenk ba?

-Noski, gauero bertsolari gonbidatuek saio bereziak prestatu dizki(n)ate, musikatuak, rapeatuak, show modukoak, ardo katak, bertso kinitoak...

-Arabar bertsolariak pitzatuta zeudenk, baina ez dizki(n)agu galduko ez!! Gora arabar patatak!

Abuztuaren 6a, arratsaldeko 8rak, bi lagunak Txosnagunera heldu dira.

-Urduri negonk... Gaur Bertxokoko lagunak egongo ditunk eta... poteak ondo atera beharrean negonk. Ijito Joakin, Bert, Lehengusu, Gauza... zer nahiko ditenk... Soinu ekipoa eta mikroak ondo jarri ditunk, oholtza zuzen, dena prest egon behar dink 21:30etarako.

-Bai noski, udazkenean egindako kursilloa ez di(n)at oraindik ahaztu!



ARABAKO BERTSO-ESKOLEN AURKEZPEN EGUNAK

Agurain, urriak 17, 18:00, bertso-eskolan

Amurrio, iraila 26, 18:00, Kultur Etxean

Aramaio, urriak 10, 20:00, Sastiñan

Gasteiz, urriak 3, 17:45, Amaia Zentroan

Izarra, urriak 9, 17:00, Frontoian

Kanpezu, urriak 8, 18:30, Kultur Etxean

Laudio, irailak 29, 17:30, udalean

Legutio, urriak 10, 17:00, Kultur Etxean

Oion, urriak 6, 17:30, euskaltegian

Zalduondo, urriak 25, 16:00, Udaletxean

Zigoitia, urriak 7, 17:00, Kultur Etxean



...eta urriaren 18, larunbata
DeNOK GASTEIZERA!

BERTXORAKERIKETA EGUNA

11:30 Hala Bedi Tabernan zozketa

12:00 Poteoa Kutxi kaletik

15:00 Bazkaria

16:30 Finala

2015eko Txapelketarako aurre-kanporaketak

2015eko Arabako Bertsolari Txapelketan 18 bertsolarik parte hartu ahal izango dute, 35k izen eman dute.

Aurtengo iraila eta urriaren jokatu diren 5 aurre-kanporaketetan 30 bertsolarik parte hartuko dute eta 13 sailkatuko dira 2015eko Txapelketarako.

Urtarrilaren 17an aurkeztuko da 2015eko Txapelketa.

2015eko Arabako Bertsolari Txapelketarako
aurre-kanporaketak
Irailak 27, larunbata
KANPEZUko Kultur Etxean
16:30ean, **1.aurre-kanporaketa**



Irati Antda, Zigor Eñebaita, Iker Olabarrieta, Oier Arbina, Ainara Balantzastrategi, Unai Gomez

Gai-jartzailea: Olatz Santocildes

18:15ean, **2.aurre-kanporaketa**



Ander Solozabal, Xabi Igoa, Iñaki Tena, Egoitz Tradier, Iker Agirre, Iñaki Lertxundi

Gai-jartzailea: Veronica Domingo

Antolatzailea: Kanpezu Udalaren laguntzarekin

2015eko Arabako Bertsolari Txapelketarako
aurre-kanporaketak
Urriak 4, larunbata
OZAETAko Iduia Jauregian
16:30ean, **3.aurre-kanporaketa**



Paula Amilburu, Iker Pastor, Jon Ruiz de Pinedo, Iñaki Cabeza, Josu Campo, Aier Rubio

Gai-jartzailea: Oier Suarez

18:15ean, **4.aurre-kanporaketa**



Unai Mendibil, Ainhoa Comas, Unai Bengoetxea, Maite Murga, Peru Abarrategi, Jon Sanchez

Gai-jartzailea: Marta Ugarte

Antolatzailea: Barrundiako Udalaren laguntzarekin

2015eko Arabako Bertsolari Txapelketarako
aurre-kanporaketak
Urriak 11, larunbata
ELOSUko Aretoan
17:30ean, **5.aurre-kanporaketa**



Felipe Zelaieta, Maria Izaga, Maddalen Arrausi, Unai Argote, Maria Fuentes, Irati Ruiz de Pinedo

Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta

Antolatzailea: Elosuko Kontzejaren laguntzarekin

Bertso-ikasturtea hastera doa

Udako bertso-saioek etenik eduki ez badute ere, oporraldiaren ondoren berriro martxan ipiniko gara. Atsedanak emanten duen kemenarekin ikasturtearekin batera hainbat egitasmo martxan ipiniko dira, batzuk ikasturte osoan irauten dutenak, adibidez:

- Arabako 42 ikastetxetan 5 eta 6.mailakoekin bertsolaritza landu.
- Arabako 11 herritan bertso-eskola.
- Bertxoko irratsaioa, Hala Bedi irratian asteazkenero 20:00etan.

Beste batzuk, udazkenean burutuko direnak:

- Irailaren bukaeran eta urriko lehenengo bi larunbatetan 2015eko Arabako Bertsolari Txapelketan parte hartzeko sailkapen aurre-kanporaketak.
- Urriaren 18an, Gasteizen Arabako bertso-eskolen ikasturtearen hasierako eguna, Bertxorakeriketa.
- Azaroan Bertxoko.
- Azaroan Gasteizko Udal liburutegietan 5 saio burutuko dira formatu eta adin ezberdinetarako.

Era berean, Arabako Bertsozale Elkartearen baitan 2015-2018 plana garatuko dugu. 2018ko Arabako bertsolaritza eta bertsogintza irudikatu nahi dugu eta horretarako plana garatu.

ZERNAHI



Esaera zaharrak argi esaten dink: AURREAK ERAKUSTEN DINK ATZEA NOLA DANTZATU. Guk, Araban, ondoko argazkia ikusi ondoren, alderantziz ulertzen dugu esaera: ATZEAK DANTZATZEN DUENAK, AURRERA ERAKUSTEN DINK. Zertara datorren hau? Ein? Udako bertso-argazki bilduman saltsan plausta-plausta ibili ondoren, hauxe aurkitu dugulako: bolo-jokoan neska-mutil kuadrilla, bertso-udalekuetan. Eta begiralea? Begiralea aurrera begira, BAINA KAMERARI ATZEA ERAKUSTEN. Eta ez dunk edukazio falta, ez: gure fabore ari dunk. HORI BIZKARRALDEA, HORI PONPISA, HORI HANKAPELOTAKO TATUAJEA. Ene ama zeruetakoa, nork harrapatuko zezen hori.

AGENDA

2014-09-27, **Elosu**

Bertsolariak 19:30 Elosuko plaza Paula Amilburu, Iñaki Viñaspre Antolatzaileak: Legutioko Udala

2014-09-27, **Kanpezu**

Arabako Txapelketarako. 1. aurre-kanporaketa 16:30 Kultur Etxea Irati Anda, Oier Arbina, Ainara Balantzategi, Zigor Enbeita, Unai Gomez, Iker Olabarrieta Gai-jartzailea: Olatz Santocildes Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte

2014-09-27, **Kanpezu**

Arabako Txapelketarako. 2. aurre-kanporaketa 18:15 Kultur Etxea Iker Agirre, Xabi Igoa, Egoitz Iradier, Iñaki Lertxundi, Ander Solozabal, Iñaki Tena Gai-jartzailea: Veronica Domingo Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte

2014-10-04, **Ozeta**

Arabako Txapelketarako. 3. aurre-kanporaketa 16:30 Iduia Jauregia Paula Amilburu, Iñaki Cabeza, Josu Campo, Iker Pastor, Asier Rubio, Jon Ruiz de Pinedo Gai-jartzailea: Oier Suarez Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte

2014-10-04, **Ozeta**

Arabako Txapelketarako. 4. aurre-kanporaketa 18:15 Iduia Jauregia Peru Abarrategi, Unai Bengoetxea, Ainhoa Comas, Unai Mendibil, Maite Murga, Jon Sanchez Gai-jartzailea: Marta Ugarte Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte

2014-10-11, **Elosu**

Arabako Txapelketarako. 5. aurre-kanporaketa 17:30 Elosuko Aretoa Unai Argote, Maddalen Arrausi, Maria Fuentes, Maria Izaga, Irati Ruiz de Pinedo, Felipe Zelaieta Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte

2014-11-13, **Gasteiz**

Bertso-zahar jarriak "Tximela kapitainaren izarrak" emanaldia 19:00 Aldabe Gizarte Etxeko liburutegia Protagonistak: Joseba Tapia Antolatzailea: Gasteizko Udala

2014-11-18, **Gasteiz**

Emakumeak protagonista 19:00 Judimendi Gizarte Etxeko Liburutegia Protagonista: Ixabel Agirresarobe Antolatzailea: Gasteizko Udala

2014-11-27, **Gasteiz**

"Hiru, bi, zast...egizu jolas" harrentzako emanaldia 18:00 Iparralde Gizarte Etxeko Liburutegia Antolatzailea: Gasteizko Udala

2014-12-11, **Gasteiz**

"Kulunkantauri" haurrentzako ikuskizuna 18:00 Lakua Gizarte Etxeko Liburutegia Antolatzailea: Gasteizko Udala